

steilas en informazio elektronikoa • 2020ko urtarrilaren 27an

PATRONALEK BESTE BEHIN ATZERATU DUTE LANBIDE-HEZIKETA ARAUTZEA

Joan den ostiralean, urtarrilaren 24an, Gizarte Ekimeneko Irakaskuntza Zentroen hitzarmenaren Negoziazio Mahaia izan genuen, hitzarmenaren barruan hurrengo ikasturteetan LHko funtzionamendua eta lan-kargak arautuko dituzten alderdi nagusiak adosteko. STEILASek proposamen oso zehatzak eraman zituen irakastorduen banaketa irregularrari, lantokiko prestakuntzaren koordinazioari eta tutoretzari eta "irakaskuntzari laguntzeko kreditu-ratioari" dagokienez, baina ezin izan ziren eztabaidatu. **Patronalek ez zuten edukietan sartu nahi izan 2020/2021 ikasturterako ebazpena ezagutu arte.** STEILASek adierazi du ez dagoela ados negoziazioaren atzerapenarekin, eta, bestalde, patronalei eskatu die bete dezatela uztailaren 19ko ebazpenean 2019/2020 ikasturterako ezarritakoa. Mahaia otsailaren 17an berriro bilduko zela erabaki zen, gai hau jorratzeko. Espero dugu egun horretan patronalek proposamenak ekartzea, eta negoziatzeko eta aurrera egiteko prest agertzea. Hala ez bada, arduragabekeria handia litzateke bere aldetik.

2020KO SOLDATA-TAULAK SINATU DITUGU

Negoziazio-mahai horretan 2020rako soldata-etaulak ere sinatu ziren, greba-amaierako akordioan jasotakoaren arabera. Akordio horren arabera, Euskadiko KPI 2019+% 2 igo zen, hau da, % 3,2. Igoera hori urtarileko nominan aplikatuko da; hala ez balitz, jada eguneratuta dagoen otsailekoan urtarrilean sortutako atzerapenak jasoko lirateke. Gainera, STEILASek proposatu zuen erreferentzia-taula batzuk egitea 2017,2018 eta 2019ko atzerapenekin. Proposamena onartu zen, eta otsailaren 3an izango den hurrengo negoziazio bileran aurkeztuko dira.

GIZARTE EKIMENEN ZENTROEN 2020 SOLDATEN TAULA

IRAKASLEAK	Oinarrizko soldata	Urteko soldata	Hirurtekoa
Hezkuntza laguntzako espezialistak	1.952,01	27.328,12	35,82
Haur Hezkuntza 1. zikloa Irakaslea	2.437,86	34.130,10	45,51
Haur Hezkuntza 1. zikloa TEJI	1.729,71	24.215,91	36,65
Haur Hezkuntza 1. zikloa Laguntzaile	1.497,72	20.968,08	37,78
Haur Hezkuntza 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza	2.437,86	34.130,10	45,51
DBH 1. Diplomatuak	2.586,42	36.209,94	45,51
DBH1-2 Lizentziatuak, Batxileroak, Lanbide H eta OLH	2.833,36	39.667,03	56,19
IRAKASLEAK EZ DIREN TITULUDUNAK	Oinarrizko soldata	Urteko soldata	Hirurtekoa
Goi-mailako tituludunak	2.833,36	39.667,03	56,19
Erdi-mailako tituludunak	2.437,86	34.130,10	45,51
PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS	Oinarrizko soldata	Urteko soldata	Hirurtekoa
Administrazioko eta idazkaritzako burua	2.009,55	28.133,69	44,75
Ofizial administratiboa eta bulegoko burua	1.830,15	25.622,03	37,78
Administratiboa laguntzailea	1.817,81	25.449,37	37,78
Etxezaina, atezaina, harreragilea eta gobernatzaina	1.699,19	23.788,64	37,78
Mantenimendu, lorategi eta sukaldeko laguntzailea	1.573,87	22.034,16	37,78
1. mailako ofiziala eta 1. mailako ofizial gidaria	1.907,70	26.707,77	37,78
Garbiketa eta jantokiko langilea	1.585,82	22.201,54	37,78
Sukaldeko burua	1.907,70	26.707,77	37,78
Sukaldaria	1.692,87	23.700,19	37,78
2. mailako ofiziala eta 2. mailako gidaria	1.692,87	23.700,19	37,78
Ikasle-begiralea	1.573,87	22.034,16	37,78

Hezkuntzan STEILAS

www.steilas.eus